



Santa Ana eguna ospatzeko topa

📅 Uzt 26, 2020 🌐 Ekitaldiak, Sagardoa 💬 0 comments



Astigarragako alkatea, sagardogileak eta herriko kultur taldeetako ordezkariak 45. Santa Ana egunaren alde topa egiteko elkartu dira gaur Astigarragako Udaletxean. Santa Ana egunerako prestatutako bideoa proiektatu ostean, aurtengo edalontziaren marrazkiaren egile nahiz sare sozialetako zozketaren irabazleari beren sariak banatu eta topa egin da sagardoaren kulturaren alde.

Aurten ez da urteroko sagardo dastaketarik izan Foru Plazan baina Euskal Herriko Sagardo Egunik zaharrena denari omenaldi xume bat egiteko **topa berezi bat** ospatu da Astigarragako Udaletxean. Bertan izan dira Xabier Urdangarin Astigarragako alkatea eta Sagardun Partzuergoko presidentea, sagardogileak (Alorrenea, Astarbe, Etxeberria, Gartziategi, Gurutzeta, Lizeaga, Mina, Oialume Zar, Petritegi, Rezola, Txopinondo eta Zapiain) eta herriko kultur taldeetako ordezkariak (Astigar, Aurrera Mutilak, Gure Izarra, Goldea Herri Kirol Batzordea, Harituz Astigarraga, Mundarro Kirol Elkartea, Norberto Almandoz Musika Eskola, Xagu Xar Aisialdi Taldea eta Zipotza Kultur Elkartea).

Alkateak eskerrak eman dizkie bertaratu diren guztiei eta aipamen berezia egin die Astigar eta Zipotza elkartei 1976an Sagardo Eguna ospatzeko ideia asmatu eta urte askotan zehar aurrera eraman izanagatik. Ondoren, Santa Ana egunerako prestatutako bideoa ikusi da, gero sariak banatu dira eta amaitzeko topa egin da Santa Ana eguna ospatzeko.

Jendearen parte-hartzea sustatzeko, aurten **Santa Anako sagardo edalontzirako irudi lehiaketa** ospatu da maiatza-ekaina bitartean eta epaimahaiak aukeratutako marrazki irabazlea Txemi Valdecantos-ena izan da, gaur 400€-ko saria jaso duelarik. Bestalde, sare sozialetako zozketaren irabazle izan den Luis Calvete herritarrek bere sagardo lotea jaso du.

Aurten Astigarragako 45. sagardo dastaketaz etxean gozatzeko **sagardo lote** bereziak prestatu dira eta festa etxeetatik haratago zabaltzeko asmoz, familiarrean zein lagunartean egindako sagardo dastaketen **argazki lehiaketa** bat martxan jarri da sare sozialetan, argazki esanguratsuena uztailaren 27an emango delarik jakitera.

Santa Ana eguneko **bideoa** Astigarragako udaleko webgune nahiz sare sozialetan dago ikusgai:

www.facebook.com/Astigarragako

www.twitter.com/AstiarakoUdala

www.youtube.com

www.astigarraga.eus

2020ko Santa Anako argazkiak eskuratu

Bilatzailea

	Bilatu
----------------------	--------

Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

[Museoak](#)[Sagardoa](#)[Sagardotegiak](#)[Sagarra](#)[Sagastia](#)[Turismoa](#)

Artxiboak

Hautatu hilabetea



ZATOZ ETA GOZATU



Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

[Zure plana erreserbatu](#)[Nola mugitu](#)[Non lo egin](#)[Hautatutako ibilbideak](#)[Beste proposamenak hemendik gertu](#)[Gidak eta informazio praktikoa](#)

SAGARDOTEGIAK

[Sagardotegia erreserbatu](#)[Sagardotegia aukeratu](#)[Garraioa sagardotegietara](#)[Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak](#)

SAGARDOETXEA

[Bisita erreserbatu](#)[Sagardoetxea – museoak](#)[Erakusketa eta bisita guneak](#)[Bisita motak](#)[Nola iritsi eta sarbideak](#)[Tarifak eta ordutegiak](#)[Bisita birtuala](#)[Dokumentazio Zentroa](#)

[SAGARDO FORUM](#)[AGENDA](#)[BLOGA](#)[HEDAPENA](#)[Informazio orokorra](#)[Boletina](#)[Argazkiak](#)[Buletinera harpidetza](#)[Hitzaldiak](#)[Sare sozialak](#)

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

© 2020 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua
LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#)[PROIEKTUAK](#)[AKORDIOAK](#)[KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)